

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko hitzarmena, euskal autonomia erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko hezkuntza-programa garatzeko dena.

2017ko uztailearen 7an sinatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko hezkuntza-programa garatzeko lankidetzaren hitzarmena.

Horrela argitaratzen da dagozkion ondorioetarako eta denek jakin dezaten.

Donostia, 2017ko abuztuaren 2a.—M.^a Jesús Pérez Garcia-rena, idazkari teknikoa. (5706)

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko hitzarmena, euskal autonomia erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko hezkuntza-programa garatzeko dena.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailearen 7a.

BILDUTA

Batetik, Pedro María Azpiazu Uriarte jauna, Ogasun eta Ekonomia Sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren (hemendik aurrera EAEko Administrazioa) ordezkari gisa.

Bestetik, José Luis Cimiano Ruiz jauna, Ogasuna, Finantza eta Aurrekontu saileko Foru Diputatua, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Bestetik, José María Iruarrizaga Artaraz jauna, Ogasuna eta Finantza saileko Foru Diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Bestetik, Jabier Larrañaga Garmendia jauna Ogasuna eta Finantza saileko Foru Diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Alderdiek hitzarmena sinatzeko behar den gaitasun juridikoa onartu diote elkarri eta hori dela bide hauxe

AZALTZEN DUTE

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren 2013ko urriaren 14ko erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea sortu zen, lau kide dituena: Eusko Jaurlaritzako bat, ogasun arloko eskumena

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El 7 de julio de 2017, se suscribió el convenio de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Lo que se publica a los efectos oportunos para general conocimiento.

San Sebastián, a 2 de agosto de 2017.—La secretaria técnica, María Jesús Pérez Garcia-rena. (5706)

Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 2017.

REUNIDOS

De una parte, D. Pedro María Azpiazu Uriarte, Consejero de Hacienda y Economía, en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante Administración de la CAE).

De otra parte, D. José Luis Cimiano Ruiz, Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, en representación de la Diputación Foral de Álava.

De otra parte, D. José María Iruarrizaga Artaraz, en su calidad de Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, en representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

De otra parte, D. Jabier Larrañaga Garmendia Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

EXPONEN

Mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria de fecha 14 de octubre de 2013, se creó la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco que está integrada por 4 miembros: uno del Gobierno Vasco designado por el titular del

duen Sailaren titularrak izendatua, eta foru-aldundietako bana. Batzordeak iruzurraren aurka ondoren eginiko plan bateratuek, lehenasunezko jarduketa-lerroen artean, heziketa zibiko-tributarioa sustatzea jaso dute. Zehazki, Iruzuraren kontrako Borrokarako 2016ko Plan Bateratuak honako hau jasotzen du: «Herritarren kontzientzia fiskal kolektiboa indartzea, gazte-gaztetatik zerga-kontzientzia handitzea xede duten hezkuntza-ekintzak bultzatzearen bitartez, gai fiskalei prestakuntza etikoaren eta herritarren ikuspegitik helduz». Halaber, Iruzuraren kontrako Borrokarako 2017ko Plan Bateratuaren prebentzio-ekintzen artean jasota dago Euskal Autonomia Osora zabalitzea hezkuntza-modulu bat, proiektuarekin bat egiten duten ikastetxe guztietan eman beharrekoa, era horretan EAEko Oinarriko Hezkuntzaren curriculumean sartu ziren heziketa zibiko-tributarioko edukiak hezkuntza arautuan ematea bultzatzearen. Era berean, foru-aldundi bakoitzak aurreikusita dauka zerga-heziketa bultzatzea ikuskapen- eta egiaztatze-planetan.

Sinatzen duten administrazioen iritziz, EAEko ikastetxeetan, DBHko 4. mailatik aurrera, ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzea lagungarria izan daiteke zerbitzu publikoari eusten parte hartzea eta iruzur fiskalen aurrean tolerantziarik ez izatea euskal gizartearen balio gisa sustatzeko helbururako.

Aipatutako unitate didaktikoa ezartzeko orduan eraginkortasuna eta arrazionalizazioa laguntzearen, egokia da, gure ustez, berau EAEko ikastetxe guztietan, DBHko 4. mailatik aurrera, ezartzeko zerbitzuak kontratatze prozesuan batera jarduteko oinarriak finkatzea.

Ogasun eta Ekonomia Sailak, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoko (EZKO) partaidetzaren bitartez –Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzaren Fiskalerako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen bidez sortu eta arautu zen–, besteak beste, eginkizun hau du: «foru-aldundien arteko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea tributu-eskumenak erabiltzeko orduan, tributuaren kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzearen»; hori dela eta, proiektu honetan, batetik, ogasunaren arloan sinatzen duten administrazioei dagozkien eskumenak daude eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikuluko Euskal Autonomia Erkidegoari hezkuntzaren arloan ematen dion eskumena eta Lurralde Historikoei dagozkien tributu-eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta Kontzertu Ekonomikoaren 1. artikuluan ezarritakoa betez.

Horregatik, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute eta honako hauek hitzartzen dituzte:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea.

1. Hitzarmen honek honako hau du xedetzat: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, DBHko 4. mailatik aurrera, ekonomia eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzeko heziketa-programa bat garatzeko jarduketak zehaztea, ikasleen artean kontzientziazio fiskal handiagoa sustatzearen; horren barruan sartzen dira alderdiek aipatutako unitate didaktikoa 2017/2018 ikasturtean ezartzeko zerbitzu-kontratu bat esleitu eta kudeatzeaz egin beharreko jarduketak, bai eta EAEko Administrazioak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatutako kontratua finantzatzeko irizpideak zehaztea ere.

Departamento competente en materia de Hacienda y uno por cada Diputación Foral. Los sucesivos planes conjuntos contra el fraude elaborados por la Comisión, han incluido entre las líneas de actuación prioritarias la promoción de la educación cívico-tributaria. En concreto, el Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude 2016 contiene una referencia al «fortalecimiento de la conciencia fiscal colectiva de los ciudadanos, mediante el fomento de acciones educativas orientadas a elevar la conciencia fiscal desde una etapa temprana, abordando la temática tributaria desde la perspectiva de la formación ética y ciudadana». Asimismo, entre las acciones preventivas del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude 2017 se contempla la extensión al conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco de un módulo educativo que será impartido en todos aquellos centros educativos que se adhieran al proyecto, dando así un impulso a la impartición en la enseñanza reglada de los contenidos de educación cívico-tributaria que ya fueron incorporados en el currículo de Educación Básica del País Vasco. Igualmente, cada una de las Diputaciones Forales contempla el impulso de la educación tributaria en cada uno de sus respectivos planes de inspección y comprobación.

Las administraciones firmantes consideran que la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la CAE, a partir de 4.º curso de la ESO, puede ayudar al objetivo de promover como valores de la sociedad vasca la participación en el sostenimiento de los servicios públicos y la tolerancia cero frente al fraude fiscal.

Con el fin de favorecer la eficiencia y racionalización en la implantación de la mencionada unidad didáctica, se considera oportuno establecer las bases para actuar de forma conjunta en el proceso de contratación de los servicios para la implementación de la misma en todos los centros escolares de la CAE a partir del 4.º curso de la ESO.

El Departamento de Hacienda y Economía, a través de su participación en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE), creado y regulado mediante la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal tiene atribuida, entre otras, la función de «Impulsar la coordinación y colaboración entre las Diputaciones Forales en el ejercicio de sus competencias tributarias en aras a lograr una mayor eficacia en la gestión tributaria», por lo que confluyen en este proyecto las competencias que corresponden en materia de hacienda a las administraciones firmantes, con la competencia que en materia de educación otorga a la Comunidad Autónoma de Euskadi el artículo 16 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y la competencia tributaria correspondiente a los Territorios Históricos, en virtud de lo establecido en el artículo 41 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y artículo 1 del Concerto Económico.

Por ello, las partes suscriben el presente Convenio y acuerdan las siguientes.

CLÁUSULAS

Primera. Objeto del convenio.

1. El presente Convenio tiene por objeto definir las actuaciones dirigidas a desarrollar un programa educativo para la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi a partir de 4.º de la ESO, con el fin de promover una mayor concienciación fiscal entre el colectivo estudiantil, que incluye las actuaciones de las partes respecto a la adjudicación y gestión de un contrato de servicios para la implantación de dicha unidad didáctica durante el curso escolar 2017/2018, así como la determinación de los criterios de financiación del mencionado contrato por parte de la Administración de la CAE, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Bizkaia y Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Hitzarmen honen xedea da, halaber, arautzea <http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus> plataforman bildutako ekonomia eta zergei buruzko unitate didaktikoa ustiatzeko eskubideak zein baldintzatan lagako dizkien Gipuzkoako Foru Aldundiak gainerako administrazio sinatzaileei.

3. Unitate didaktiko komuna ezarriko da hitzarmen honen Jarraipen eta Baloraziorako Batzordeak zehaztutako jarraibideen arabera. Nolanahi ere, foru-aldundiek unitate didaktikoko beren berariazko tributu-araubidera egokitzeko eskubidea izango dute.

Bigarrena. Kontratazio-organoa.

EAEko Administrazioari agintzen zaio unitate didaktiko komuna 2017/2018 ikasturtean zehar ezartzeko zerbitzuak kontratatzea eta, ondorioz, hitzarmenaren xede den kontratuari dagokionez, kontratazio publikoaren arloan indarrean den araudiak kontratazio-organoari ematen dizkion ahalmenak beteko ditu.

Kontratazio Mahaiko bileretan parte hartuko du, aholkulari aditua del aldetik, bosgarren klausulan araututako Jarraipen eta Balorazio Batzordeak, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoan) ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Ustiapen-eskubideen lagapena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ekonomia eta zergei buruzko unitate didaktikoaren jabetza intelektualeko eskubideen titularra den aldetik (plataforma honetan daude jasota: <http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus>), laga egiten dizkie gainerako administrazioarek aipatutako lana ustiatzeko eskubideak, 2017ko ekainaren 30ean eguneratutako bertsioan, eta honako baldintza hauekin:

a) Lagapenaren xedea: aipatutako webgunean jasotako unitate didaktikoaren edukiak erreproduzitzeko, jendaurrean jakinarazteko eta eraldatzeko eskubideak hartzen ditu barnean ustiatzeak.

b) Lagapenaren denbora-eremua: ustiapenaren iraupena mugagabea izango da.

c) Baldintza ekonomikoak: webgunean garatutako edukia-zen izaera dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du zenbatekorik jasoko eskubideak lagatzearen ordain gisa. Lagapen-hartzaileek, berriz, ezin izango dute beste batzuen zenbatekorik jaso unitate didaktikoa ustiatzearen truke.

d) Lagapenaren izaera: eskubideen lagapenak izaera ez-esklusiboa du. Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginararen 48. artikuluari jarraikiz.

2. Administrazio sinatzaileek beretzat gordetzen dute unitate didaktikoaren edukia beren lurralde-esparruan askatasunez eta beren baliabideak erabiliz zabaltzeko eskubidea, bai eta heziketa-programa beren lurralde-eremuan ezartzeko prozesuaren emaitzak aztertzea ere.

3. Foru-aldundiek unitate didaktikoa garatuko dute nork bere erakunde-webean. EAEko Administrazioak, berriz, unitate didaktikoen edukiak jasotzen dituzten hiru foru-aldundien webetarako estekak gehituko ditu Ogasun eta Ekonomia Sailaren webean, eta horien berri bestelako bide batzuetatik zabaltzen lagunduko du, orobat.

Laugarrena. Kontratuaren finantzaketa.

1. Unitate didaktikoa ezartzearen kostua honela banatzen da:

a) Unitate didaktikoa ezartzeko zerbitzuen ondoriozko kostu finkoak.

– Behin betiko diseinua, metodologia eta plangintza barne hartzen dituen memoria.

2. Asimismo es objeto del convenio regular los términos en que se producirá la cesión por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa a las demás Administraciones firmantes de los derechos de explotación sobre la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad incluida en la plataforma: <http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus>.

3. La unidad didáctica común se implantará conforme a las directrices que se determinen por la Comisión de Seguimiento y Valoración del presente convenio. No obstante las diputaciones forales se reservan el derecho a adaptar los contenidos didácticos a su régimen tributario específico.

Segunda. Órgano de Contratación.

Se encomienda a la Administración de la CAE la contratación de los servicios de implantación de la unidad didáctica común durante el curso escolar 2017/2018, que ejercerá por tanto, con respecto al contrato objeto del Convenio, las facultades que la normativa vigente en materia de contratación pública atribuye al órgano de contratación.

A las reuniones de la Mesa de contratación se incorporará en calidad de asesora especializada la Comisión de Seguimiento y Valoración regulada en la cláusula Quinta, de conformidad con el Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Tercera. Cesión de derechos de explotación.

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa, en su calidad de titular de los derechos de propiedad intelectual de la unidad didáctica sobre economía y fiscalidad, alojados en la plataforma <http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus>, cede al resto de Administraciones firmantes los derechos de explotación de la mencionada obra, en la versión actualizada a 30 de junio de 2017, en las siguientes condiciones:

a) Objeto de la cesión: la explotación comprende los derechos de reproducción, distribución, comunicación pública y transformación de los contenidos de la unidad didáctica en el referido sitio web.

b) Ámbito temporal de la cesión: la duración de la explotación tendrá carácter indefinido.

c) Condiciones económicas: dada la naturaleza del contenido desarrollado en la página web, la Diputación Foral de Gipuzkoa no percibirá cantidad alguna como contraprestación por la cesión de los derechos. Por otra parte, los cesionarios tampoco podrán recibir cantidad alguna de terceros por la explotación de la unidad didáctica.

d) Carácter de la cesión: la cesión de derechos se constituye con carácter no exclusivo, en los términos del artículo 48 del Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual.

2. Las Administraciones firmantes se reservan el derecho a difundir libremente y por sus propios medios, el contenido de la unidad didáctica en su ámbito territorial, así como a analizar los resultados del proceso de implantación del programa educativo en su ámbito territorial.

3. Cada Diputación Foral desarrollará la unidad didáctica en su propia web institucional. Por su parte la Administración de la CAE incorporará en la web del Departamento de Hacienda y Economía enlaces a las webs que alojen los contenidos de las unidades didácticas de cada una de las tres diputaciones forales y colaborará en su difusión por otros medios alternativos.

Cuarta. Financiación del contrato.

1. La distribución del coste de implantación de la unidad didáctica se realizará del siguiente modo:

a) Costes fijos derivados de los servicios de implantación de la unidad didáctica.

– Memoria diseño definitivo, metodología y planificación.

- Material didaktikoa egitea.
- Amaierako memoria.
- Programa ezartzen den ikastetxe kopuruak kostuan zuzenean eraginda ez dauden beste batzuk.

EAEko Administrazioa: % 50.

Foru-aldundiak: Gainerako % 50a, baliabideak banatzeko metodologiari eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenei buruzko araudian programaren hasieran, hau da, 2017-2018 ikasturterako, indarrean dauden koefiziente horizontalen arabera banatuta:

- Elaboración de material didáctico.
- Memoria final.
- Otros cuyo coste no está en función directa del número de centros escolares en que se implante el programa.

Administración de la CAE: 50 %.

Diputaciones Forales: 50 % restante, distribuido según los coeficientes horizontales regulados en la normativa de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que estén vigentes al inicio del programa, es decir, para el curso 2017-2018:

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia	Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
% 8,225 8,225 %	% 25,330 25,330 %	% 16,445 16,445 %

b) Programa ezartzeko kostuak, ikastetxe bakoitzeko unitate-zenbateko bat oinarri hartuta zehaztutakoak.

EAEko Administrazioa: Programa irakasten duten EAEko ikastetxe guztietan ezartzeko kostuaren % 50a.

Foru Aldundiak: Foru Aldundi bakoitzari dagokio bere lurralde historikoko ikastetxeetan ezartzeko kostuaren % 50a.

2. 2017/2018 kontratazio-espeditentean gehieneko kostua finkatzeko erreferentziako eszenatokiaren arabera, programa gehienez 150 ikastetxetan ezarriko da; Gipuzkoan % 65eko ezarpen-tasa egongo da (75 ikastetxe), eta % 35 inguruko Araba eta Bizkaian (15 eta 60 ikastetxe, hurrenez hurren).

Ondorioz, parte hartzen duten erakundeek gehienez beren gain hartutako konpromiso ekonomikoa honako hau da:

b) Costes de implantación del programa determinados a partir de un importe unitario por centro educativo.

Administración de la CAE: 50 % del coste correspondiente a la implantación en todos los centros de la CAE en los que se imparta el programa.

Diputaciones Forales: cada Diputación Foral el 50 % del coste de implantación en los centros de su correspondiente territorio histórico.

2. El escenario de referencia para fijar el coste máximo en el expediente de contratación 2017/2018 considera un despliegue del programa en un número máximo de 150 centros, con una tasa de implementación en Gipuzkoa del 65 % - 75 centros- y en Álava y Bizkaia de alrededor del 35 % -15 y 60 centros, respectivamente-.

En consecuencia el compromiso económico máximo asumido por las instituciones partícipes es el siguiente:

EAE-KO IKASTETXEETAN EKONOMIARI ETA ZERGEI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOA EZARTZEKO KOSTUAREN ERAKUNDEEN BANAKETA DISTRIBUCIÓN INSTITUCIONAL DEL COSTE DE IMPLANTACIÓN DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA ECONÓMICO-TRIBUTARIA EN LOS CENTROS ESCOLARES DE LA CAE						
Agertokia: gehienez 150 ikastetxe. Escenario máx. 150 centros escolares.						
KOSTU FINKOAK COSTES FIJOS	GUZTIRA TOTAL	EJ GOVA	AFA DFA	BFA DFB	GFA DFG	FFAA DD.FF
Finantzaketaren %-a % de financiación		% 50 50%	% 8,225 8,225%	% 25,330 25,330%	% 16,445 16,445%	% 50 50%
Kostu finkoak, guztira (€ BEZ barne) Total Costes fijos (€ IVA incluido)	11.000	5.500	905	2.786	1.809	5.500
KOSTU ALDAGARRIAK COSTES VARIABLES	GUZTIRA TOTAL	EJ GOVA	AFA DFA	BFA DFB	GFA DFG	FFAA DD.FF
Finantzaketaren %-a % de financiación		% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%	% 50 50%
Kostu aldagarriak, guztira (€ BEZ barne) Total Costes variables (€ IVA incluido)	180.000	90.000	9.000	36.000	45.000	90.000
KOSTUA, GUZTIRA (€ BEZ barne) COSTE TOTAL (€ IVA incluido)	191.000	95.500	9.905	38.786	46.809	95.500

3. Hitzarmena sinatzen duten administrazioek ordainduko dute aipatutako zenbatekoa, aurrekontuko honako programa eta partida hauen kargura:

3. Dicho importe será financiado por cada una de las administraciones firmantes de este convenio, con cargo a los siguientes programas y partidas presupuestarias:

Administrazioa Administración	Aurrekontu-esleipena Consignación presupuestaria	Gehieneko zenbatekoa (BEZa kanpo) Importe máximo (sin IVA)	BEZ IVA	Zenbatekoa, guztira Importe total	Urtekoak Anualidades
EAEko Admin. Admón. CAE	17.0.1.06.21.0100.1. 238.99.61120.001 I	157.851 €	33.149 €	191.000 €	Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2017: 57.300 € Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2018: 133.700 €
Arabako FA D.F. Álava	17.3.18.20.1.00.28.00. 226.99.01	8.186 €	1.719 €	9.905 €	Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2017: 0 € Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2018: 9.905 €
Bizkaiko FA D.F. Bizkaia	0501 920106 421.30 Proyecto 2017/0019	32.055 €	6.731 €	38.786 €	Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2017: 0 € Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2018: 38.786 €
Gipuzkoako FA D.F. Gipuzkoa	06.10.110.227.12. 00.2018	38.685 €	8.124 €	46.809 €	Aurreklontu-ekitaldia Ejercicio presupuestario 2018: 46.809 €

4. Administrazio kontratatzaileak hartuko du bere gain kontratazioak eragindako kostuak ordaintzea, ondoren foru-aldundiei jasanaraztea hargatik eragotzi gabe. Ondore horietarako, EAEko Administrazioak egiaztatzeko fakturen kopia bidaliko dio bakoitzari, zer zenbateko dagokien adierazita, eta, ondoren, zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Nagusiaren kontura transferituko dute 2018ko ekainaren 30a baino lehen.

4. Será la Administración contratante quien asumirá el abono de los costes derivados de la contratación, sin perjuicio de su posterior repercusión a las Diputaciones Forales. A estos efectos la Administración de la CAE remitirá a cada una de ellas copia de las facturas acreditativas, con indicación del importe que les corresponde, tras lo cual, éstas procederán a transferir dicho importe a la cuenta de la Tesorería General del Gobierno Vasco antes del 30 de junio de 2018.

Bosgarrena. Jarraipen-batzordea.

Quinta. Comisión de Seguimiento y Valoración.

1. Jarraipen eta Baloraziorako Batzordearen bitartez gauzatuko da administrazio sinatzaileen arteko lankidetzeta.

1. La cooperación entre las administraciones firmantes, se llevará a efecto a través de la Comisión de Seguimiento y Valoración.

2. Lau (4) kide ditu Jarraipen eta Baloraziorako Batzorde horrek, bana administrazio bakoitzaren ordezkarietan, edo horiek eskuordetutako pertsonak.

2. Esta Comisión de Seguimiento y Valoración estará integrada por 4 miembros, uno en representación de cada una de las administraciones, o las personas en quienes deleguen.

EAEko Administrazioaren ordezkaria, edo eskuordetzen duen pertsona, izango da batzordeburua. Batzordeko idazkaria, berriz, EAEko Administrazioaren zerbitzuko pertsona bat izango da; eginkizunak beteko ditu horrek baina ez du bozkatzeko eskubiderik izango.

Corresponde la Presidencia de la Comisión al representante de la Administración de la CAE, o persona en quien delegue, correspondiendo la Secretaría de dicha Comisión a una persona al servicio de la Administración de la CAE que ejercerá sus funciones pero no dispondrá de derecho a voto.

3. Jarraipen eta Baloraziorako Batzordeak zeregin hauek izango ditu:

3. La Comisión de Seguimiento y Valoración tendrá las siguientes funciones:

a) Unitate didaktiko komuna ezartzeko jarraibideak finkatzea.

a) Fijar las directrices para la implantación de la unidad didáctica común.

b) Egindako txosten teknikoak aztertzea.

b) Estudio de los informes técnicos elaborados.

c) Kontratazio-mahaiaren bileretan parte hartzea bigarren klausulan xedatutakoarekin bat etorriz.

c) Participación en las reuniones de la Mesa de contratación de acuerdo con lo dispuesto en la cláusula Segunda.

d) Aurreikusitako helburuak eta ekintzak betetzen direla aldian-aldian jarraitu eta ebaluatzea.

d) El seguimiento y la evaluación periódica del cumplimiento de los objetivos y acciones previstos.

e) Hitzarmena betetzen dela zaintzea.

e) La vigilancia del cumplimiento del presente convenio.

f) Zortzigarren klausulan aipatzen den luzapena proposatzea, eta, luzapenaren eraginpean dauden aurrekontu-ekitaldietarako, kontratuaren kostuaren banaketa eguneratzea, laugarren klausulan ezarritako irizpideen arabera.

f) Proponer la prórroga a la que se refiere la cláusula Octava y la actualización, para los ejercicios presupuestarios afectados por la prórroga, de la distribución del coste del contrato conforme a los criterios establecidos en la cláusula Cuarta.

g) Hitzarmena garatu eta gauzatzeko orduan sor litezkeen interpretazio-aztiak argitzea.

g) Resolver sobre las cuestiones de interpretación que puedan surgir en desarrollo y ejecución de este Convenio.

h) Hitzarmen honetan zehaztutako beste edozein.

h) Cualesquiera otras señaladas en el presente convenio.

4. Idazkariak egingo ditu batzordearen deialdiak, batzordeburuaren aginduz, eta gutxienez 48 orduko aurrerapenez. Deialdia, ahal bada, bide elektronikoz egin beharko da, eta ezta baidatzeko zein erabakiak hartzeko behar diren agiri guztiak izango ditu atxikita.

Batzordea era egokian eratzeko, kideen gehiengo absolutua eta idazkaria bertan egon beharko dira.

5. Bertaratutako kideen gehiengo soil bidez hartuko ditu batzordeak erabakiak. Berdinketa dagoenean, presidentearen kalitate botoak erabakiko du.

Hala ere, Batzordeak aho batez hartuko ditu erabakiak, hitzarmena luzatzeko eta kontratuaren kostuaren banaketa eguneratzeko proposamenak mintzagai dituenean, bai eta berariaz hitzarmenean aurreikusita ez dauden eta hezkuntza-programa ezarriko duen ikastetxe-kopuruarekin zuzenean lotuta ez dauden bestelako kostu finkoak zehazteko proposamenak dituenean mintzagai ere.

Batzordekide guztiak hitza eta botoa izango dute. Idazkariak, batzordekidetzat hartu gabe, hitzarekin baina botorik gabe gauzatuko ditu eginkizunak.

Seigarrena. Suntsiarazpena.

Sinaitzaileetako batek beregain hartutako betebeharrak edo konpromisoak betetzen ez baditu, gainerako administrazioetako edozeinek dei egin ahalko dio urraketa egin duen aldeari, hila-beteko epean betebeharrak eta konpromiso horiek bete ditzan. Halaber, dei hori bera Jarraipen eta Balorazio Batzordera ere igorriko da. Emandako epea igaro eta eskaria erantzun ez bada, Jarraipen eta Balorazio Batzordea jakinaren gainean jarri ondoren, hitzarmena bertan behera geratuko da.

Nolanahi ere, automatikoki indargabetzeko kausa izango da kontratazio-prozedura 2017ko uztailaren 1ean has dadin ez onartzea.

Suntsiarazpenaren ondorioak ezartzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015 Legearen) 52. artikuluan ezarritakoa beteko da. Gasturik sortu bada, hitzarmen honen laugarren klausulan ezarritako arauak jarraikiz ordainduko da.

Zazpigarrena. Araubide Juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, horrela xedatzen baita urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluaren 4.1.c artikuluan ezarritakoa.

Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikuluko 2 zenbakiko a) letran aurreikusitako tipologia du lankidetzahitzarmen honek.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginiaren 4.1.c artikuluan aurreikusitakoarekin bat, horren aplikazio-eremutik kanpo dago.

Hitzarmena garatu eta beteaztean alderdien artean auzirik sortzen bada eta bosgarren klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Balorazio Batzordearen baitan ebatzi ezin bada, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998 Legean) ezarritakoari jarraikiz.

Zortzigarrena. Indaraldia eta luzapenak.

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu sinatzen denetik aurrera, eta indarrean izango da haren babesean egindako kontratua amaitu arte. 2018ko ekainaren 30rako dago aurreikusita.

4. Las convocatorias de la Comisión las efectuará la Secretaría por orden de la Presidencia con una antelación mínima de 48 horas. La convocatoria deberá realizarse preferentemente por medios electrónicos, debiendo acompañarse de la documentación necesaria para la deliberación y la adopción de acuerdos.

Para la válida constitución de la Comisión deberán estar presentes la mayoría absoluta de sus miembros y la persona que ocupe la Secretaría.

5. Los acuerdos de la Comisión se adoptarán por mayoría simple de los miembros asistentes. En caso de empate, se decidirá por voto de calidad de la Presidencia.

No obstante, se adoptarán por unanimidad los acuerdos de la Comisión relativos a la propuesta de prórroga del convenio y de actualización de la distribución del coste del contrato, así como los relativos a las propuestas de determinación de otros costes fijos que no estén previstos de forma expresa en el convenio y que no estén en función directa del número de centros escolares en que se implante el programa educativo.

Todos los miembros de la Comisión tendrán voz y voto. La persona que ejerza la Secretaría, que no tendrá la condición de miembro de la Comisión, ejercerá sus funciones con derecho a voz, pero sin voto.

Sexta. Resolución.

En caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por una de las partes firmantes, cualquiera de las restantes administraciones podrá notificar requerimiento a la parte incumplidora para que en un plazo de un mes lleve a cabo dichas obligaciones y compromisos, requerimiento que será comunicado asimismo a la Comisión de Seguimiento y Valoración. Transcurrido el plazo otorgado sin haber atendido el requerimiento y una vez comunicada a la Comisión de Seguimiento y Valoración esta circunstancia, el convenio quedará resuelto.

No obstante es causa de resolución automática la falta de aprobación del inicio del procedimiento de contratación el 1 de Julio de 2017.

En lo referente a los efectos de la resolución, se estará a lo establecido en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. En caso de que se hayan producido gastos, se realizará su abono conforme a las reglas fijadas en la cláusula Cuarta del presente convenio.

Séptima. Régimen Jurídico.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El presente convenio de colaboración reviste la tipología prevista en la letra a), apartado 2 artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

De conformidad con lo previsto en el artículo 4.1 c) del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, está excluido del ámbito de aplicación de la misma.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante su desarrollo y ejecución y no puedan ser resueltas en el seno de la Comisión de Seguimiento y Valoración prevista en la Cláusula Quinta, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Octava. Vigencia y prórrogas.

El presente Convenio producirá efectos desde su firma y estará en vigor hasta la finalización del contrato que se celebre a su amparo, prevista para el 30 de junio de 2018.

Hala ere, administrazio sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, beste kontratu bat esleitu eta kudeatu dadin beste hiru ikasturtez, 2021. urtera arte, laugarren klausulan ezarritakoaren arabera eguneraketa eginda, baldin eta aurrekontu-gordailu nahikoa badago.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, lau aletan eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako egunean eta lekuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.

Snta.: Pedro María Azpiazu Uriarte.

Arabako Foru Aldundia.

Snta.: José Luis Cimiano Ruiz.

Bizkaiko Foru Aldundia.

Snta.: José M.^a Iruarrizaga Artaraz.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Snta.: Jabier Larrañaga Garmendia.

No obstante podrá acordarse su prórroga por acuerdo unánime de las Administraciones firmantes, para la adjudicación y gestión de un nuevo contrato por un período de tres cursos escolares adicionales hasta 2021, actualizado en los términos de la cláusula cuarta, previa la existencia de consignación presupuestaria suficiente.

Y en prueba de su total conformidad, las partes firman este Convenio, por cuadruplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Fdo.: Pedro María Azpiazu Uriarte.

Por la Diputación Foral de Álava.

Fdo.: José Luis Cimiano Ruiz.

Por la Diputación Foral de Bizkaia.

Fdo.: José M.^a Iruarrizaga Artaraz.

Por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Fdo.: Jabier Larrañaga Garmendia.